

Dena dago prest Huhezinemaren 4. ediziorako

2011/05/06

Aurtengo egitaraua aurreko edizioen ildotik joango da. Aurten ere dokumentalak eta film laburrak jaso dira, fikziozkoak eta animaziozkoak. Eta horietatik epaimahaiak hamar lan onenak sarituko ditu. Horietaz gain, sarizatuko dira euskarazko lanik onena, film laburrik onena eta publikoaren lanik gustukoena.

Nacho Vigalondo

Maiatzaren 11ko ekitaldian Nacho Vigalondo zinema zuzendari eta gidoilari ospetsua izango da Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatean. Bertan, bere esperientzia pertsonalaz hitz egingo du. "7:35 de la mañana" film laburrari esker, Nacho Vigalondok sari asko irabazi zituen, eta izendapena lortu Oscarretarako. 2007an, berriz, bere lehen film luzea egin zuen, Los Cronocrimenes izenekoa.

Hitzaldiaz gain, maiatzaren 11n Ikus-Entzunezko Komunikazioko 3. eta 4. mailako ikasleen dokumentalak eta fikziozko lanak ikusiko dira. **Odei Esnaola** eta **Maidar Juaristi** ikasleek aurkeztuko dituzte maiatzaren 11ko ekitaldiak, eurek irabazi dute-eta castina, horretarako propio egindakoa.

Maiatzaren 12an, berriz, lehiaketa ofiziala egingo da Arkupe Kultur Etxean, Aretxabaletan. Bertan ikusiko dira epaimahaiak aukeratutako 10 filmak eta sariak banatuko dira. Ekitaldi hau Ainhoa Vitoriak eta Xabier Unanuek aurkeztuko dute, Gaztea irratiko esatariak.

10 film aukeratuak

Jasotako lan guztietatik, epaimahaiak 10 lan hauek aukeratu ditu lehiaketa ofizialerako: **Libre** (zuz.: Iker Azkoitia), **Uzkaili** (zuz.: Jon Artola), **Jugando con la muerte** (zuz.: Paul Urkijo), **El método Julio** (zuz.: Jon Garaño), **Hemen nago** (zuz.: Maialen Sarasua), **Marinel itsua eta itsasneskak** (zuz.: Josu Arteaga), **Hidden Soldier** (zuz.: Alejandro Suárez), **Los 4 mcnif ikos** (zuz.: Tucker Dávila Wood), **Artalde** (zuz.: Asier Altuna) eta Daisy **Cutter** (zuz.: Enrique García eta Rubén Salazar).

Antolatzaileek aukeratutako 10 lan onenek 300€ko saria jasoko dute, eta, horrez gain, epaimahaiakideek 3 sari banatuko dituzte: Ikus-Entzunezko 3. eta 4. mailako ikasleen lan onenari saria (Cassolo Saria), lehiaketa ofizialeko 10 lanen artean euskarazko lan onenari saria (Goiena Saria) eta Film Labor Onenari Saria. Era berean, ikusleek ere hiru sari banatuko dituzte: 3. mailako ikasleen Dokumentalik Onenari, 4. mailako ikasleen Fikziozko Lanik Onenari eta ekitaldi ofizialeko 10 labor horietatik Lan Onenari. Era berean, ekitaldi berean, Karlotia Castrillo ikasleak Kartel onenaren saria jasoko du, berak egin baitzuen aurtengo kartel irabazlea, "Kamera buruan eta euskal zinema munduan" leloa duena.

Aurtengo lehiaketa ofizialeko epaimahaia Asier Urbietak, Miren Gaztañagak eta Unai Guerrak osatuko dute.

Antolatzaileak

Huhezinema HUHEZIk antolatzen du, Mondragon Unibertsitatearen



Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, zehatzago esanda, Ikus-entzunezko komunikazioko ikasle talde batek, 4. mailakoa, Iban del Campo irakaslearen zuzendaritzapean. Erakusleihoa izan nahi du Euskal Herrian sortutako ikus-entzunezko produktuentzat. Horregatik, bertan tokia dute zuzendari esperientziadunek eta hasi berriek.